

KAPITALAREN MINTEGIA

2. SAIOA

BIGARREN ATALA

4. KAPITULUA. DIRUTIK KAPITALERAKO ERALDAKETA

Kapitala obrako bigarren atalak lehenengo ataleko garapen teorikoak emaitza gisa utzi duena hartzen du abiapuntutzat, hau da, merkantzien zirkulazioa edo zirkulazio sinplea. Orain arte ikusi ditugun erlazio ekonomiko garatuenean merkantzien eta diruaren arteko trukea eta truke horri dagozkion legeak izan dituzte oinarri, baina, ez dugu, momentuz, kapitalaren berririk izan; bestela adierazita, “[Marxek] *gizarte kapitalistaren* esposaketa *kapitalaren abstrakzioa* eginez abiatzen duela”¹ ikusi dugu.

Bada, bigarren atal honetan agertuko zaigu lehen aldiz kapitala, baina, zirkulazioan agertzen den forman. Atal honek *Kapitala* obran jokatzen duen papera zirkulazio eta ekoizpen esfera kapitalisten arteko giltzadura non dagoen seinalatzea dela esan daiteke; izan ere, kapitalaren ekoizpen prozesuan funtsezkoak diren kategoriak agertzen dira lehen aldiz (kapitala, balorizazioa, gainbalioa, lan-indarra), baina, zirkulazio forma berri baten osagai gisa: kapitalaren formula orokorraren osagai gisa. Atal osoa mugitzen da zirkulazioaren esferan, baina bere mugetaraino eramaten du; izan ere, zirkulazioa soilik kontuan hartuta gainbalioaren sorrera azaltzerik ez dagoela frogatzen da, eta, merkantzia oso berezi baten (lan-indarraren) salerosketaren eskutik beste esfera ekonomiko bat ikertzeko beharrezana dagoela: ekoizpenarena.

4.1. KAPITALAREN FORMULA OROKORRA

Eduki materialaren ikuspegitik, M-D-M (*erosteko saltzea*) formulak, alegia, zirkulazio sinpleak, erabilera balioak eskuz aldatzeko bitartekaritza funtzioa betetzen du eta kontsumoaren esferara bideratzen ditu merkantziak, edozein direla ere asetzen dituzten beharizanak. Forma ekonomikoaren ikuspegitik, ordea, beste bat da aspektu garrantzitsua. Jada lehenengo ataleko 3. kapituluan dio Marxek irudi eder batekin: “Zirkulazioak dirua izerditzen du etengabe”². Bada, merkantzien zirkulazioaren azken emaitza hau da, hain justu, kapitalaren lehenengo adierazpen edo manifestazio forma. Honek zera esan nahi du, hasiera batean, zirkulazio sinplearekin alderatuta, kapitala diruaren zirkulazio forma espezifikoki ezberdin moduan agertzen dela edo, dirua, forma espezifikoki horretan zirkulatzen duen heinean, kapital bilakatzen dela. Zirkulazio forma hori D-M-D (*saltzeko erostea*) da. Ondorioz, kapitala diruaren zirkulazio forma espezifikoki ezberdin bat baldin bada, orduan, orain arte esposizioan zehar agertu diren bi zirkulazio forma hauek alderatuz gero, delako ezberdintasuna zertan datzan argiztatuko da: *dirua diru gisa* eta *dirua kapital gisa* zertan diren ezberdin.

¹César Ruiz Sanjuán, *Historia y Sistema en Marx*, Madril, Siglo XXI, 222. or.

²Karl Marx, *El Capital*, Madril, Siglo XXI, 166. or.

Lehenengo begiratuan, biak ala biak, hala M-D-M nola D-M-D, bi fase kontrajarri berdinetan deskonposatzen direla nabarmentzen da, salmentan eta erosketan; beraz, merkantzia jabeek saltzaile eta erosle paperak jokatzen dituzte hurrenez hurren, batean zein bestean. Hala ere, bi fase horien ordena kontrakoa da ziklo bakoitzean, eta horrek inplikazio garrantzitsuak dauzka ziklo horien bitartekoei, helburuei eta izaerari dagokionez. M-D-M zikloan, kontsumoaren bitartez beharizan bat asetzeko zirkulaziotik ateratzen den merkantzia, objektu erabilgarria, mugimenduaren helburua eta bultzatzailea da eta diruak bitartekari papera jokatzen du mugimendu horretan; D-M-D zikloan, berriz, dirua zirkulaziora jaurtitzen da berreskuratzeko intentzioarekin eta merkantzia mugimendu horren bitartekaria baino ez da. Zirkulazio formen arteko ezberdintasun honek zera erakusten du, zirkulazio sinplearen edukia erabilera balio edo kualitate ezberdineko merkantzien elkartrukeak osatzen duela, baina, D-M-D zirkulazioan, bi muturrek daukatenez kualitate berbera (biak direlako dirua) bilatzen den ezberdintasuna soilik kuantitatiboa izan daitekeela. Garapen horrek zera ondorioztatzen garamatza, D-M-D' dela prozesu horren forma osatua, non D' izango litzatekeen hasieran aurreratutako dirua gehi balio-gehikuntza bat. Jatorrizko balioaren gaineko balio-gehikuntza horri deitzen dio Marxek gainbalioa eta balio magnitudea aldatze-prozesu horri balorizazio. Mugimendu horretan gertatzen da dirutik kapitalerako eraldaketa. Horrez gain, kontuan izan behar da merkantzien zirkulazio sinplearen helburua zirkulaziotik at (alegia, kontsumoaren esferan) dagoela, baina, kontrara, *diruaren zirkulazioa kapital gisa* helburu bat dela bere horretan.

Lehenengo ataleko 2. kapituluaren (Truke prozesua) ikusi dugu lehen aldiz nola pertsonak, erlazio ekonomikoaren giza-eramaile gisa, erlazio ekonomiko horien pertsonifikazio bilakatzen diren, nola beraien kontzientzietan helburu propio edo subjektibo gisa agertzen dena erlazio ekonomikoaren eduki objektiboak emana den. Bada, kapitalaren formula orokorrarekin igualtsu gertatzen da. Esan bezala, formula horren eduki objektiboa balioaren etengabeko balorizazioak osatzen du eta eduki hori helburu subjektibo gisa daukana eta D-M-D' mugimenduaren eramaile dena da kapitalista, kapital pertsonifikatua, bere kontzientzia eta nahimenarekin.

Dena den, zer da orain arte kapitalari buruz dakiguna? Bada, ezer gutxi, hazkundera den balioa dela, diru eta merkantzia formak tartekatzen dituen prozesu jakin baten bitartez balorizatzen den balioa dela. Zentzu horretan, bere zirkulazio formaren ikuspegitik balioa prozesu horren subjektu dominatzaile gisa agertzen zaigu, mugimendu propioa daukan substantzia gisa edo "subjektu automatiko" gisa, hain zuzen ere, "balioa izateagatik balioa gehitzeko *kualitate ezkutua* eskuratu" duelako³. Dena den, azpimarratu beharra dago balioa izate hutsagatik balioa gehitzeko kualitate ezkutu hori, ezkutua dela, hain justu, zirkulazioaren ikuspegitik soilik erreparatu diogulako. Gainbalioa, egitate gisa egiaztatu dugu, zirkulazioan agertzen den moduan ikusi dugu, baina, oraindik ez dakigu, inondik ere, nola sortzen den, nola ote den posible gainbaliorik existitzea.

4.2. FORMULA OROKORRAREN KONTRAESANAK

Esposaketaren puntu honetara arte, oinarri teoriko bakarra zirkulazio sinplea eta dagozkion legeak izan dira. Laburbilduta: baliokideen elkartrukea. D-M-D' forma, berriz, kapitalaren formula orokorra da zirkulazioan

³*Ibid.*, 213. or.

zuzenean agertzen den moduan, eta esan dugu formula honen eduki objektiboa gainbalioaren eraketa dela. Ondorioz, gainbalioaren eraketa zirkulazio sinpleari dagozkion legeen arabera azaldu daitekeen egiaztatu behar da eta, halakorik ezean, ea lege horien urraketa bezala azaldu ote daitekeen.

Formula orokorraren kontraesanei buruzko azpiatal hau honela laburbildu daiteke: 1) Baliokideen trukea oinarri hartuta, aberastasunaren forma materialari (erabilera balioa) dagokionez, merkantzien jabeak irabazle suerta daitezke; izan ere, biek uzten dituzte alde batera erabilera balio gisa behar ez dituzten merkantziak, eta beharriaz asetzeko erabilgarri zaizkienak eskuratzen dituzte. Hala ere, elkartrukearen bitartez zirkulaziora jaurti den balio magnitudeak ez du aldaketarik jasaten, eta, ondorioz, ez da gainbaliorik eraten. 2) Demagun ez direla baliokideak trukutzen eta saltzaileek merkantziak beren balioa baino %10 garestiago saltzeko pribilegioa dutela. Badakigu, ordea, orain saltzaile dena gero erosle izango dela, eta, beraz, %10eko gehikuntzarekin erosi beharko dituela merkantziak. Dena gelditu da hasi den moduan. 3) Kontuan har ditzagun orain pertsonak indibidualki, bakoitza bere maltzurkeria eta zuhertasun gradu ezberdinekin, ez soilik erlazio ekonomikoen pertsonifikazio gisa. A-k B-ri 40€ko balioa duen ardo kantitate bat saltzen dio eta trukean 50€ko balioa duen gari kantitatea eskuratzen du. Kasu honetan, baina, zirkulazioan den balio magnitudea ez da atomo bat ere handitu, distribuzioa baino ez da aldatu. A-k B-ri zuzenean 10€ lapurtu izan balizkio aldaketa berdina gertatuko zatekeen. Hiru urrats hauen ondorioa ondorengoa da: “zirkulazioak edo merkantzien trukeak ez du inolako baliorik sortzen”⁴

Orduan, baina, zerbait gertatu behar da zirkulaziotik kanpo, zirkulazioaren ikuspegitik *ezkutukoa* den zerbait gainbalioaren sorrera azalduko duena. Baina hori nola liteke? Merkantzia jabeen arteko hartu-eman oro zirkulazioan gertatzen da, guztiak ekoizle pribatu eta elkarrekiko independenteak baitira; zirkulaziotik kanpo, berriz, beren merkantziekin soilik erlazionatzen dira. Merkantzia jabe batek balioak sor ditzake bere lanaren bitartez, ez, ordea, autobalorizatzen diren balioak. Ezin ebatzizko arazo batekin topo egin dugula dirudi; izan ere, zirkulazioan ezin daiteke gainbaliorik sortu, baina, ezta zirkulaziotik kanpo ere.

4.3. LAN-INDARRAREN SALEROSKETA

Arestiko argudiaketak erakutsi digu zirkulazioko ekintzetatik ezin daitekeela balio-gehikuntzarik eratorri. Dirua altxor gisa zirkulaziotik aterata ere baliorik ez da gehitzen. Beraz, badirudi aukera bakarra dela lehenengo ekintzan, D-M ekintzan, erosi den merkantziaren eskutik gertatzea balio magnitudearen aldaketa, baina, baliokideen arteko trukearen legea dagoenez indarrean, merkantzia horren erabilera balioan edo kontsumoan izan beharko du jatorria balio-gehikuntzak. Hori posible izan dadin, diruaren jabeak zirkulazioaren esfera barruan *balio-iturri* izatearen ezaugarri bitxia daukan merkantzia bat aurkitu beharra dauka, zeinaren kontsumoa *lanaren objektibazioa* den, eta, beraz, *balio sorkuntza*. Bada, *lan-indarra* da, hain zuzen ere, merkantzia espezifiko hori.

⁴*Ibid.*, 222. or.

Puntu honetara iritsita lan-indar merkantziari buruzko 3 galdera oinarriko erantzun beharra dago, merkantzia espezifikoko horren ezaugarri bereizgarriak zertan dauztan argitze aldera. **1)** Zein baldintza bete behar dira lan-indarra merkaturan ager dadin merkantzia forman? **2)** Nola determinatzen da lan-indar merkantziaren balioa? **3)** Zerk bereizten du lan-indar merkantziaren kontsumoa gainontzeko merkantzien kontsumotik?

1) Lan-indarra merkantzia forman agertzeko baldintzak. Gogoan izan uneoro, *Kapitala* obrako 2. atal honetan, oraindik ezagutzen ditugun dependentzia-harreman bakarrak zirkulazio sinpletik eratortzen direnak direla, non ekintza guztiak borondatezkoak diren eta merkantzien jabeek jokatzen dituzten paper ekonomikoak ez dauden elkarrekiko hierarkia-harremanean, berdintasun juridikoan baizik. Esandakoa oinarri hartuta, beraz, lan-indarra merkaturan merkantzia forman ager dadin, haren jabeak bere borondatez jarri behar du salgai, hots, aske izan behar du, formalki behintzat, bere merkantziarekin (kasu honetan, beraz, bere pertsonarekin) nahi duena egiteko. Gainera, diruaren jabeak eta lan-indar merkantziarenak, zirkulazioan merkantzien jabe soil gisa egiten dute topo, eta ondorioz, ikuspuntu honetatik, eskubide berberetz hornitutako pertsonak dira.

Alabaina, askatasun eta berdintasun formal horiek beharrezkoak bai, baina ez dira baldintza nahikoak lan-indarraren jabeak lan-indarra saldu dezan. Horrez gain, bigarren "askatasun" bat ere beharrezkoa da, lan-indarraren jabeak ekoizpen eta biziraupen bitartekoetatik "aske" izan behar du, hau da, desjabetu egin behar zaizkio. Esposaketaren puntu honetan eten bat egin eta *faktum* edo egitate historiko baten aipamena egin beharra dago; izan ere, langile askea bere lan-indarraren saltzaile gisa ager dadin beharrezkoa den desjabetze prozesua, langileen eta ekoizpen bitartekoen arteko banantzea, ez da orain arteko garapen teorikotik zuzenean deduzitu daitekeen zerbait. 2. atal hau ez da azalpen hori egiteko erabiltzen (azalpen hori jatorrizko metaketari buruzko kapituluaren egiten da, XXIV. kapituluaren), baina, seinalatuta gelditu da erantzun beharreko galdera eta azalpen historikoa ezinbestekoa den tokia. Nola eta zein bilakaera historikoren bitartez sortu zen kapitala existitu ahal izateko baldintza, *langile bi aldiz askea*, bere lan-indarraren saltzaile hori?

2) Lan-indarraren balioaren determinazioa. Lan-indarraren balioa, beste edozein merkantziarena determinatzen den era berean determinatzen da, hots, hura *ekoizteko beharrezkoa den lan denboraren* arabera. Lan-indarraren kasuan, ordea, gogoan izan behar dugu norbanako bizi baten ahalmen eta gaitasun multzoaz ari garela, norbanako horrengandik bereiztezina dena. Ondorioz, lan-indarraren ekoizpena bere jabe den norbanakoaren bizitza erreproduzitzea da, finean. Bizitza, berriz, biziraupen bitarteko jakin batzuen bidez bermatzen denez (demagun, elikagaiak, jantziak, etxebizitza...), biziraupen bitarteko horiek ekoizteko beharrezko lan denbora da lan-indarraren balioa determinatzen duena. Hala ere, beharrezko biziraupen bitartekoen bolumena eta nolakotasuna aldakorra izan daiteke momentu historikoaren, tokian tokiko ezaugarri kulturalen edo langileen aspirazio bital zein politikoen arabera. Zentzu horretan, beste merkantzienak ez bezala, merkantzia espezifikoko honen balio determinazioak elementu historiko, kultural eta moral bat dauka.

Bigarrenik, kontuan izan behar da lan-indarraren jabeen izaera hilkorra ez dela bateragarria dirua kapital bilakatzen duen prozesuaren izaera asegaitzarekin. Beraz, merkantzien jabe bitxi hauen (langileen) arraza betikotzeko modua ugalketa denez, lan-indarraren ekoizpenerako beharrezkoak diren biziraupen bitartekoek langilearen familia-nukleoaren biziraupen bitartekoak ere barnebiltzen dituzte. Azkenik, lan-indarraren formazio-kostuak ere haren ekoizpenean xahututako balio-baturan sartzen dira.

3) Lan-indarraren kontsumoa. Merkantzien kontsumoa -non merkantzia bakoitzaren erabilera balioak bere ezaugarri eta kalitate konkretuak direla medio pertsonen beharrizan konkretu batzuk asetzen dituen- orain arte kontsideratutako erlazio ekonomikoen domeinutik at egon da. Merkantzia bakoitzaren kontsumoaren nolakotasunak ez du, orain arte, garrantzia ekonomikorik izan. Lan-indarraren kontsumoa, ordea, erlazio ekonomiko berri bat da bere horretan, D-M-D' zirkulazioan balioaren ezkutuko kalitate gisa aurkezten zitzaiguna, alegia, balio izate hutsagatik balioa gehitzearen kalitatea, argitzen lagunduko diguna. Analsiak zirkulazio sinplearen mugak gainditu behar ditu, beraz, eta *lan-indarraren kontsumo prozesua* aztertu, kontsumo prozesu hori aldi berean *merkantziaren eta gainbalioaren ekoizpen prozesua* baita.

Zirkulazioaren esfera bortxarik gabeko gune gisa aurkezten zaigu, denak dira borondatezko ekintzak eta kontratu forma borondate askeen arteko bat-egite gisa agertzen da, baita diruaren eta lan-indarraren arteko trukean ere. Hori gutxi balitz, pertsona guztiek egiten dute elkarrekin topo merkantzien jabe gisa eta, balioakideak trukatzeko dituztenez, berdintasunaren legea da nagusi bai objektuen ikuspegitik eta baita subjektuenetik ere. Gainera, merkaturak eta trukea merkantzien jabeen arteko lotura sozial bakarra badira ere, bakoitzak bere interes propioari soilik jaramon egirik, interes kolektiboari egiten dio ekarpena. Baina, gainazaleko esfera zaratsatu hori utzi eta diru jabearekin eta lan-indarraren jabearekin *ekoizpenaren egoitzara* baldin bagoaz, ohartuko gara nola orain arte kontsideratu gabeko erlazio ekonomiko horretan diruaren jabea ez den merkantzien jabe soil bat, kapitalista bat baizik; era berean, lan-indarraren jabea ere ez da merkantzien jabe huts bat, are gehiago, ez da ezeren jabe, bere lan egiteko gaitasunarena ezpada. Langilea da. Behargina.

BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA

-Roman Rosdolskyk *Génesis y estructura de El capital de Marx (estudios sobre los Grundrisse)* lanean 11 eta 12. kapituluak eskaintzen dizkio dirutik kapitalerako eraldaketari eta kapitalaren eta lan-indarraren arteko trukeari, hurrenez hurren.

-Cesar Ruiz Sanjuánek *Historia y sistema en Marx* laneko 6. kapituluan (*El lugar de la historia en la exposición sistemática*) merkantzien zirkulaziotik kapitalaren ekoizpenerako trantsizioak izaera soilik sistematikoa daukala defendatzen du, alegia, zirkulazio sinplea ekoizpen modu kapitalista garatuaren esfera abstraktu bat dela -hau da, ekoizpen modu kapitalistaren aspektu bat era isolatuan adierazten duela- eta ez erlazio ekonomiko aurrekapitalista bat.